

8M inguruko ijitoen ikuspegia

Duela denbora bat ikasi genuen martxoaren 8a "emakume Langilearen Eguna" bezala ezagutzen zela, izan ere, 1857ko martxoaren 8an ospatu zen, New Yorkeko ehungintza lantegi bateko milaka emakume langile kalera atera zirenean, soldata baxuak eta gizonezko lankideak baino gutxiago kobratzea salatzen. Poliziak bortizki zapaldu zuen manifestazioa.



Urte batzuk geroago, 1911ko martxoaren 25ean, 120 *ehun-langile* baino gehiago hil ziren New Yorkeko Triangle Shirtwaist lantegian izandako sute batean. Tragedia horren ondorioz Martxoaren 8a emakumeen eguna izatearekin lotu ohi da.

Emakumeek New Yorkeko kaleetan justizia oihukatzen zuten urteetan, ijitoei debekatu egiten ziguten ijito izatea. Existitzeko eta ijito moduan onartzeko eskubidea debekatzen ziguten. 1864ra arte, esklabo ijitoak saltzen ziren Europan.

Horregatik, argi eta gabi esan nahi dugu emakume ijitoak hemen gaudela, hain indartsu eta hain gogotsu gure eskubideak defendatzeko. Gure indarra hain handia denez, bidean mila trabak topatuko ditugu, baita gure komunitatean ere, baina guk borrokatzen jarraituko dugu. Eta horrexegatik, uste osoan zehar, argi dugu 8M oso garrantzitsua dela, borroka feminista *arrazakeriaren* kontrakoa dela eta gure eskubideak eta identitatea defendatzen jarraituko dugula. **Opre romnja.**

Ehungintza: ehunak, ohialak egiteko lantegia

ehun-langile: ehun-lantegian lan egiten duena

arrazakeria: arrazagatik pertsonak baztertzea

1.- Zer gertatu zen martxoaren 8an, orain dela urte asko?

2.- Zergatik 1857an emakume asko kalera atera ziren, protesta egitera?

3.- Zer gertatu zen urte batzuk geroago, 1911n New York-eko lantegi batean?

4.- Zertan lan egiten zuten lantegi horretan?

5.- Nola zuen izena lantegiak?

6.- Zer gertatzen zen Europan momentu horretan?

7.- Artikuluaren egileak, zer aldarrikatzen (eskatzen) du artikuluan?

8.- Zergatik esaten du 8M arrazakeriaren kontra dagoela?

9.- Nola hartu duzu zuk parte aurtengo martxoaren 8an?

10.- Garrantzitsua iruditzen zaizu emakumeen borroka?

11.- Zergatik?